



# 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIA NTZAK



17. GJH da beste sare batzuekin elkarlana eta elkartasun jarduera sustatzea; hau da, nazioarteko lankidetzarako ekintzak bultzatu eta truke kulturala, kooperatibo eta solidarioa sustatzea.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

1. Lankidetzarako aurrekontua
2. Lankidetzaren sareak
3. Lankidetzaren proiektuen sustapena

## ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?


### Lankidetzarako aurrekontua

Zarauzko Udalak Lankidetzarako partida iraunkorra du bere aurrekontuetan, lankidetzarako aurrekontua % 0,7 baino handiagoa delarik.

2022an Lankidetzarako partidari dagokionez, kopuru absolutuetan (€) %5ean igo bada ere, aurrekontu osoarekiko proportzioan behera egin du 2021eko datuekin alderatuz.

Hala ere, berau %0,8koa da.

Iturria: Zarauzko Udala



### Lankidetzarako aurrekontua

Diru partidaz gain, Zarauzko udalak sare eraldatzaile desberdinetan parte hartzen du: **Euskal Fondoa** (Euskadiko Tokiko Erakundearen Garapenerako sare), **FIARE Banku etikoa** eta **Bidezko merkataritzaren aldeko hiriak**, zeinetan Bidezko Merkataritzarekin konprometitutako herrietako eragileek osatzen duten.

## Lankidetzaren proiektuen sustapena

Zarauzko Udalak herrian eta munduan zehar burutzen diren hainbat elkartasun proiektu bultzatzen ditu baita ere Gizarte Zerbitzuetako Kooperazio zerbitzuaren bitartez. Horretarako urtero **diru laguntzak** ematen ditu 3 lan-ildotan.

- Hegoaldeko herrialde pobretuetan garapen proiektuak garatzea helburu duena.


Azken hiru urtetan 578.938 € inbertitu dira, 35 proiektu gauzatzeko erabili direnak.

2021ean 194.000 € eman dira, 10 herrialdeetan gauzatu diren herritarren eskubideetan eta osasunen eragiteko 12 proiektu gauzatzeko.

- Heziketa eta sentsibilizazioa egiteko diru laguntzak

2021ean 10.000 € erabili dira mota honetako proiektuak antolatzeko.

- Gazte kooperanteei laguntzeko diru laguntzak, desplazamendu, bisa eta txertoen gastuak ordainduz.



Iturria: Zarauzko Udala

Udalak **kultura- eta lankidetzaren trukea eta elkartasuna** helburu duten zenbait ekimen babesten eta sustatzen ditu baita ere: *Oporrak Bakean*, *Errefuxiatuak: Auzolana* proiektua. *Sahara*, *Azoka Alternatibo Solidarioa*:

Zarautzek sare solidario zabal eta oparoa du baita ere.

## EKIMEN ESANGURATSUAK

### 1.

### Zarauzko Udaleko Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Aholku Batzordea